

BBK-EUSKALTZAINDIA

TXOMIN AGIRRE ELEBERRI SARIA 2008

Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatutako Txomin Agirre Eleberri sarira, 2008ko deialdi honetan sei literatura-lan aurkeztu dira: *Ekilibristaren polka*, *Erlojugilea*, *Itsasoko gutunak*, *Maldan behera doa aguro nire gorputz biluzia*, *Rotterdam*, eta *Urrezko mendia*.

Aurkezturiko literatura-lan hauen aniztasuna aipatzekoa bada ere -gaiaren aldetik zein narrazio-moldeen aldetik-, epaimahaikideok aho batez erabaki dugu *Ekilibristen polka* izenburuko lanari saria ematea. *Ekilibristen polka* narrazio-lana nabarmen gailendu da gainerako narrazioetatik, honako alderdi hauen ondorioz:

- Narrazio-lan honek irakurlea berehalakoan harrapatzen du, bai kontatzen dituen istorioengatik, bai sortu duen hizkera bereziarengatik.
- Narrazioen tankerari jarraitzen dion lana izanda ere, badira testu hauetan narrazio ezberdinak batzeko ezaugarri zenbait (pertsonaiak, lekuak, erreferentzia kulturalak...).
- Narrazio-lan hauetan aurkezturiko munduen originaltasuna eta aniztasuna nabarmentzekoa da.
- Narrazio honek tratamendu literarioa jorratu du, baina, estetizismorantz jo gabe.
- Narrazioetako pertsonaien garapena eta nortasuna gorpuzten asmatu da.
- Narrazioen garapena irudikatzeko eguneratzen den informazioaren gradatzea edo mailakatzea egokia da.
- Erreferentzia kultural anitzez jositako narrazioak dira, baina betiere istorioaren zerbitzura bilduak dira erreferentzia kultural horiek.
- Gainera, osagarri hauek guztiak ironia eta umore ukituz beteta daude.

Laburbilduz, idazkera pertsonalaren jabe da idazlea, mundu literario pertsonalak sortzeko gaitasuna duena.

Donostian, 2008ko azaroaren 21ean
Ur Apalategi, Karlos Otegi, eta Iratxe Retolaza,
epaimahaikideak